



handi

txiki

labur

luzze

asko
asko
asko
gutxi
asko
asko
asko
asko
asko
asko
asko

bax

a
l
t
u



1

NEURRI ZEHAZTUGABEA: NOLAKO

Neurri-izenondoak [**nolako** zera(k) neurriz]

handi/txiki

- Ondo gogoan ditut baserriko **ogi handi** haiek.
- Gurinezko **ogi txikiak** zerbitzatu zizkigun.
- Iratiko **gazta handi bat** ekarri zuen opari.
- **Gazta txiki biribil batzuk** erosi ditugu.

**1**

luze/labur

- **Denbora luzea eman zuen inor ikusi nahi ez zuela.**
- **Denbora laburrean bukatu zuen proba.**
- **Bide luze-luzea egin zait betiko bide laburra.**



1

altu/baxu

- Jende altua eta jende baxua
- Dorre altuak eta etxe baxuak
- Errenta altuko herrialdeak eta errenta baxuko herrialdeak.



1



“Zenbaitetan, neurria adierazterakoan, zalantza gerta daiteke **tamaina**ren irudikapenaren eta behetik gorako **eskala** bateko balioen artean.

Dena dela, neurtzeko erreferentzia garbi dagoenean (barometroa, termometroa, musika-eskala...) egokia da eskala-irudikapena.”



1

handi/txiki

(tamaina)

- **Zerga-presio handia** jasaten ari da herri xehea.
- Onuragarria da enpresaburuentzat **zerga-presio txikia**.
- Ateraldi umoretsu batekin urratu zuen Mirenek **tentsio handi hura**.
- Ona da ibiltzea **tentsio txikiak** arintzeko.



1

altu/baxu

(neurria eskalan)

Presio (atmosferaiko) altua/baxua

- **Presio altuek** eguraldi ona iragartzen dute; **presio baxuek**, berriz, eguraldi txarra eta prezipitazioak.

Tentsio (arterial) altua/baxua

- **Tentsio altua** duela esan dio medikuak.
- Egokia da azeri-buztana **tentsio baxua** dutenentzat.

1

“Presioaren eta gisa horretako nozioen kasuan, nolanahi ere, aukerakoak dira bi irudikapenak. Aukerakoa denean, konnotazio teknikoagoa hartzen du eskala-irudikapenak.”



Temperatura handia/txikia

- **Temperatura handia** hartu zuen urak suan jarrita.
- Plastikoak luzaroago eusten die **temperatura txikiei**.



1

Tenperatura altua/baxua

- **Tenperatura altuko** eremuetan bizi dira orixak.
- Ile-larrua isolatzaile ona da **tenperatura baxuetan** beroari eusteko.

Hala ere, aukera bakarra da, batzuetan, eskala-irudikapena:

(Musika-) Nota altua/baxua

- Erraz iristen dira **nota altuetara** *power metaleko* abeslariak. [#nota handietara]
- Sabelaldetik sortzen dira **nota baxuak**. [#nota txikiak]



2

KANTITATE ZEHAZTUGABEA: ZENBAT

Kantitate diskretuak

(zenbat: zer batzuen kopuru zehaztugabea)

Kantitate diskretu:
Mat., Fis. Elementu
kontagaiz edo etenez
osatua dena.

- Ogi asko jarri **ditu** mahaian.
(ogi asko = ogi ale asko)
- Argi asko jarri **dituzte** aretoan.
(argi asko = *bonbilla*, *foku* edo halako asko)
- Gas asko isuri **dira**.
(gas asko = gas mota asko)
- Gas askok igarotzen **dute** erraz larruazala.
(gas askok = gas mota askok)
- Gas gutxik xurgatzen **dute** lurreko erradiazio infragorria.
(gas gutxik = gas mota gutxik; esaterako, ur-lurruna, karbono dioxidoa, metanoa eta ozonoa)



2

Kantitate jarraitu: Bata bestetik bereizita ez dauden unitatez edo zatiz osatua dagoena: edalontzi bateko likidoa, lerro baten luzera, solido baten bolumena...

Kantitate jarraituak

(zenbat: gai batetik puska zehaztugabea)

- Ogi asko jarri **du** mahaian.
(ogi asko = ogitik asko)
- Gas asko isurtzen **da** erupzioetan.
(gasetik asko)
- Leku itxi batean gas asko metatzen **denean**,
istripu larriak gerta daitezke.
(gas asko = gasetik asko)

Aditzaren komunztadurak anbiguotasuna desegiten laguntzen du, pluralarekin komunztatu ohi baitira kantitate diskretuak, eta singularrarekin kantitate jarraituak.

3

NEURRI/KANTITATE OPOSIZIOAREN NEUTRALIZAZIOA

Izen abstraktu zenbakaitz batzuekin, esapide arruntetan, polo positibokoen eta negatibokoen arteko asimetria gertatzen da (neurria/kantitatea):

X handia [#X asko]
[#X txikia] **X gutxi**

- **Beldur handia** sortu du sute horrek hango jendeen baitan.
[#beldur asko]
- Jendearen esanei **beldur gutxi** die Karmele
[#beldur txikia]



3

- **Lotsa handia** sentitu zuen Peruk Ane aurrez aurre ikusi zuenean.
[**#lotsa asko**]
- **Lotsa gutxi** erakusten du Jonek edozeinen aurrean.
 - [**#lotsa txikiz**]
- **Pazientzia handia** behar da umeekin.
[**#Pazientzia asko...**]
- Jatorra, alaia eta **pazientzia gutxikoa**: halakoxea zen gure Martina.
[**#pazientzia txikikoa...**]



3

Izen abstraktu teknikoagoekin, ez da neutralizaziorik, adiera zenbakaitza (jarraitua) zein zenbakarria (diskretua) har baitezakete halako askok:

tentsio handia (*nolakoa*) / tentsio asko (*zenbat*, pl.)

- **Nerbio-tentsio handia** sortzen dio lanak, eta oinazeak izaten ditu maiz bizkarraldean.
(#Nerbio-tentsio asko...)
- **Tentsio handiko** eguna izan da gaurkoa.
(#Tentsio askoko eguna...)

3

tentsio handia (*nolakoa*) / tentsio asko (*zenbat, pl.*)

- Gaur egun, teknika hori baztertuta dago fatxadetako harri artifizialak zein naturalak jartzeko. Izan ere, **tentsio askoren** eraginez –hala nola tentsio termikoak eta uzkurdura-tentsioak– erori egiten ziren harriak.
- Elementuen deformazioaren ondorioz, zehar-ekintzak agertzen dira, zeinek, oro har, **tentsio asko** baitakartzate, eta horiek beste ekintza batzuen eraginez sortutako tentsioei gehitzen zaizkie.

[adibide moldatua]

Iturria: *Eraikingintzaren Kode Teknikoa*. A. Zulueta. EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2012.





3

tentsio handia (*nolakoa*) / tentsio asko (*zenbat*, pl.)

- Temperatura-tarte jakin batean oso bigunak dira halako metalak, eta **tentsio txiki bat** nahikoa dute luzatzeko.
(#...tentsio gutxi)
- Zur mota hori oso homogeneoa da eta, horregatik, **tentsio gutxi** sortzen **dira** zerraz ebakitzean.

3**denbora luzea (nolakoa) / denbora asko (zenbat, pl.)**

- [Mota horretako bihurgailuen] Desabantaila nagusia da **bihurketa-denbora luzea** eta aldakorra behar izatea. Horregatik erabiltzen da bihurketa-abiadura oso garrantzitsua ez den aplikazioetan.
(#denbora asko)
- Zirkuitu horren maiztasun maximoa edo atzerapen-denbora kalkulatzeko **denbora asko** hartu behar **dira** kontuan: flip-flop baten atzerapen-denbora (tff), atearen atzerapen-denbora (tcomb)...

[adibide moldatua]

Iturria: *Elektronika digitala*. Koord: J. L. Martin Gonzalez. EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2010.



4

-AGO, -EN, -EGI

Aurreko bereizkuntza berak dira egin beharrekoak:

tentsio handiagoa/txikiagoa/handiena/txikiena (neurria)

- Ohi den baino **tentsio handiagoa** eraginez gero hezurrari, berriz, elikagai-hornidura areagotu egiten da.
(#tentsio gehiago)
- Urak gainazalean **tentsio txikiagoa** balu, haizerik txikienarekin ere itsasoko urek kostaldeko lurrak busti egingo lituzkete.
(#tentsio gutxiago)
- Energia-prezioak eragiten ari dira **tentsiorik handiena**, adituen arabera.
- **Tentsiorik txikiena** nahikoa zuen bere onetik ateratzeko.



4

tentsio gehiago/gutxiago/gehien/gutxien (kopurua)

- **Tentsio gehiago** **ditut** giharretan azken aldi honetan.
- **Tentsio gutxiago** **ditugu** orain lantokian, baina handiagoak.
- Haranaren ezker aldean biltzen **dira** **tentsio gehien**: horregatik gertatu da luizia.
- Igerian dagoela jasaten **ditu** **tentsio gutxien** gorputzak.



4

tentsio (arterial) altuegia/baxuegia (neurria eskalan)

- Gaur ezin izan da ohetik jaiki, **tentsio baxuegia** duelako.
- Onuragarriak dira tiazidak **tentsio altuegia** dutenentzat.

Liburu hau erabili dugu, besteak beste, fitxa egiteko (83.-85. or.):

Jose Ramon Etxebarria

*Zientzia eta teknikako
euskara arautzeko
gomendioak.*

*Ikasmaterialen Aholku Batzordea
Estilo-liburuaren seigarren atala*

EIMA-22

Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2011

